



XI. HITZA ARGAZKI LEHIAKETAKO SARITUAK

Zarautzen ateratako argazkiarekin Maider Muñagorrik eraman du lehen saria; bigarren Erlantz Gonzalez gelditu da 4

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO


hitza



Igandea
2010-05-16

VIII. URTEA 2.002. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Asteasun San Isidro Egunean idi pareta eta zaldiaren arteko desafioa antolatuta zuten. A. IMAZ

BASERRITARREN EGUNA EUROPEAN OSPATU DUTE ESKUALDEAN

SAN ISIDRO EGUNA Amasan eta Asteasun desafioko ikusteko aukera egon zen atzokoan; Alkizan gaur ospakizunekin jarraituko dute 5



Baltsa Jaitsieran Oria ibaia gertutik ezagutu zuenik ere izan zen. A. IMAZ

III. Txapin Festan gazteak kalean eta Oria ibaian ibili dira

TOLOSA Baltsa Jaitsiera ikusteko jende ugari gelditu zen Oria ibaiaren bi aldeetan 7



Albizturren Herri eskolako haurrek antzerkia eskaini zuten Kultur Astearen baitan. ESTI EZEIZA

KULTUR ASTEEK BERE LEKUA EGIN DUTE

KULTURA Albizturren eta Amezketan atzo amaitu ziren ekitaldiak; Iruran aurrera jarraitzen dute eta Lizartzan bihar hasiko dira 6

TITULAZIO OFIZIALAK

ceinpro

ERDI ETA GOI MAILAKO
HEZIKETA ZIKLOAK
DISEINU GRAFIKOAN

INFORMAZIOA 943 310 873

Nazioarteko Lehiaketak
Praktikak atzerrian

K Komikia

Gorka Salaberria



From Uzturre



» Uzturretik

Iraitz Lizarraga

O rain arte, atzerrira joatean bakarrik izaten genituen hizkuntza aldetik komunikazio arazoak, baina azkenaldi honetan herritik oso urrun joan jabe, hainbat elkarrizketa ulertzea kostatzen da.

Badirudi, hizkuntza mundial berri bat sortzen ari dela; euskara, espainiarra, euskanglisa, ziber-euskalinglisa...? Auska-

lo! Baina ez da batere erraza ulertzen!

Badira urte batzuk aldaketa hontaz jabetzen hasia nintzela: martzianitoen makinitak, gameboy, bihurtu zirenean; ondoren playstationa etorri zen, one, two, three... eta ez dakit zenbat garrena. Orain Wii, wi-fit eta horrelakoak dauzkagu; honek japoniera arastok baditu, ezta?

Telefonoa ere historiaurreko kontua da, orain e-phonea erabiltzen dute modernitoenek; nik aurreko hilabetean aldatu behar izan nuen nire patatofonoa: pin-a ahaztu eta sim tarjeta blokeatu zitzaidan, eta pam kodea ere ez nekienez, K.O geratu zitzaidan. Oraingo Nokiak bluetootha eta ez dakit zenbat giga dauzka eta bideo-klipak eta guzti ikusi ditzaket!

Lagun batek, e-book bat oparitu

ziotela esan zidan, eta oraindik ez daukat oso argi zer den, nik juxtu juxtu gobernatzen baitut nere pc zaharra, bere hardware eta softwarea, bere megabyteak, memoria ram, ...! eta kriston programa pila: word, power point, photoshop, freehand... Interneta ere zer-bait manejatzen dut: mailak jasotzeko, txateatzeko, facebookean kuxkuxean ibiltzeko edo spotifyan musika entzuteko (compact-disketan edo pendrivean musika gordetzea baino erosoagoa da, pare bat tekla klikatu eta musika guztia eskura baituzu). Ikastaroren bat edo beste on-line egin ditud, skypean ere aritu naiz zenbaitetan eta hainbat dokumentu eta argazki skaneatzeko ere erabili izan dut.

Hala ere, ez naiz etxe zuloan gehiegi egoten, ez baitut home-cinema; nahiago izaten dut sandwich batzuk hartu eta trekking pixka bat egitera atera, udaran surfing edo windsurfing eta neguan, skiatzera edo snow egitera... forfai gehiago garestitzen ez bada behintzat! Hala ere bookin-ga garaiz eginez gero, badaude weekend-pack merkeak. Rafting, gommeing, jumping, puenting eta horrelakoak ere aukera proposa dira. Nahiago ditut outdoorreko ekintzak, polian footing, aerobic, power-pump, gap, etc, spinning edo pilates (Hara! Grekoa ere nahastu zaigu nonbait!) egitea baino.

Enfin... eta zer esan bussines arloan mugitzen diren managerrei buruz: ez nuke haien meeting ba-

tean egon nahi, edo orain hain modan jarri diren coaching sesio batetan, assistant bat beharko nuke itzulpenak egiteko. Ez naiz harritzen denak stressak jota ego-tea! Gainera geroz eta ugariagoak dira mobing kasuak mundu horretan, ikastetxeetako bullying kasuen moduan.

Ke heavy! Ingelesaren inbasio honek kezkatuta nauka benetan... agian blog bat irekiko dut egoera salatzen... eta posterrez josiko ditut kaleak, flyerrak banatu eta sprayez pintadak egin... single bat ere atera dezakegu, slogan potente batekin... eta merchandising pixka bat ere: kamixetak, shortak... ke guay!!! Nire ardurak badu irtenbiderik: Don't worry, be happy!!!

@ Zurea da hitza. Gure web orriak egunkarian parte hartzeko aukera ugari eskaintzen ditu. Horietako bat Zurea da hitza atala da. Bertan zuren herriko edo inguruneko albisteak idazteko aukera edukiko duzu. Ondoren, egunkarian argitaratuko dira berriak. Sar-tu gure web gunean:

www.tolosaldekohitza.info

ERRETENGIBEL - ETXEBIZITZA SALGAI
LETXUGA KALEAN, 2 LOGELA
SUKALDEA JARRITA

informazioa : 943670892 erreten@tolosakoudala.net

ALOKAIRUAN

■ Tolosa. Apartamentua alokagai, Tolosako Alde Zaharrean. Etxe berria, igogailua, berogailua eta sukaldea hornitua. 665 70 93 80.

BESTERIK

■ Txakurkumea. Txakurkumeak oparitzen dira. Interesatek dei dezatela 618 25 49 71 telefono zenbakira.



Txmari Estebanen entsaladak arrakasta izan zuen atzokoan. A. IMAZ

Baserritarren egunak eta KMO ekimenak jende ugari erakarri du Tolosako azokara

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna San Isidro giroan ospatu zen. Baserritarren eguna zela eta, oso giro alai izan zen gure azokan. Askok, euren egunaz gozatzeko, azokara hurbiltzea erabaki zuten. Goizeko lehen orduetan beraz, baserritar ugari joan zen Tolosara.

Udaletxeak ere izan zuen zerikusia giroan. Aurretik Tolosako Azoka + KMO jardunaldiak direla eta, bertako sukaldariak, erosketak azokan egitea eta pintxo batzuk prestatzera gonbidatzen ari dira. Atzo Txemari Esteban etorri zen, eta prestatutako entsalada pintxoak arrakasta handia izan zuen bisitariengan.

Eskaerak buruz hitz eginda, aipatzekoak udaberriko barazkiak, babak, ilarrak, tomateak eta lekak. Perretxikoak ere azokan aurki zitezkeen, bai zizak eta baita onddoak ere.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk. Gares.		
Landareak		
Alegria	1,50	2,00
Geraneoa	2,00	-
Menta	1,50	6,00
Berbena	3,00	-
Zainzuria	2,80	-
Salbia	1,00	1,20
Zilantroa	1,50	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak		
Onddoak	30,00	30,00
Onddoak poteetan	9,00	-
Mortxela	20,00	-
Zizak	10,00	36,00

Fruituak		
Kiwiak	3,50	-
Errezil sagarra	2,00	4,00
Urra	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak (sorta)		
Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	5,00
Porrua	1,50	3,00

Barazkiak (kiloa)		
Babarrun zuria	8,00	-
Tomatea	3,25	4,00
Ilarrak	10,00	12,00
Patata berria	1,50	2,00
Bainak	3,00	4,00
Babak	3,00	-

PRODUKTUEKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Kalabaza	1,60	3,04
Baratxuri	1,60	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Dilistak	2,40	-
Txitxirioak	2,40	-

Z Zurea da hitza



Tolosako trafikoa: 'De pena'

Ez zen kolektoreagatik. Tolosa autotz zeharkatzeak desesperantea izaten segitzen du: lehen ueste nuen kolektoreko lanengatik zela. Baina amaitu dituzte lanak (halako batean), eta desastreak berdin segitzen du: Arrameletik, Rondilla kalea eta San Frantzisko autotz gurutzatzea *Operación imposible* da orain ere. Nori okurritu zaio San Frantziskon, autotz atzekoz aurrera apartatu beharra? Trafiko zinegotzia: DIMISIOA ORAIN!

E. Mandiola.

Tolosako TOPIC-en TO! Euskaraz!

Harrera emaila erdalduna. Igan-dean KIMUAK saileko laburmetraiak ikustera joan nintzen TOPIC-era: interesgarria baina oso jende gutxi bildu zuena. Dozena bat, kontatuak. Lehen ere entzuna nuen, baina... sekulako sorpresa txarra hartu nuen, harreran dagoen emakumeari euskaraz egin eta gazteleeraz erantzun zidanean. Hor ez al da «perfilik» eskatu behar?

Manex.

KZgunearen zerbitzu berria

Eusko Jaurlaritzak KZgunea Zentru Sarea erabiltzen du herritarrei zuzenduriko zerbitzu berri bat martxan jartzeko.

Eusko Jaurlaritzak aste honetan, hiru Lurralde Historikoetan, KZgunea Saretik eskeintzen den IKT-ekin erlazionaturiko zerbitzu berri bat abian jarri du. Bere lehenengo fasean, zerbitzu hau erabilgarri dago herritarrentzat Amurrioko KZgunean Araban, Hernani eta Tolosako KZguneetan Gipuzkoan eta Ermuako KZgunean Bizkaian. Lehenengo fase honetako helburua, zerbitzu honetik herritarren beharrei bu-

ruko informazioa biltzea da. IKT Adituek, diagnosi zerbitzua, oinarriko esku-hartzea eta ordenagailuen eta periferikoaren erosketak eta konfiguraziorako aholkularitza zerbitzu bat eskeintzen dute, hurrengo eran zehazten dena:

* Arazoak dituzten ekipoen eta periferikoaren diagnostia.

* Ordenagailuen eta periferikoaren erosketak eta konfiguraziorako aholkularitza.

* Hardwarearen instalazio egokiaren egiaztapena.

* Software Librearen, lizentziadun softwarearen eta sistema eragile librearen instalazioan laguntza.

* Hardware, software librearen eta sistema eragile libre eta lizentziadunen konfiguraketan laguntza.

Zerbitzua erabiltzeko arau eta muga batzuk bete behar dira:

* Zerbitzu hau erabiltzeko, KZguneko erabiltzaile izatea beharrezkoa da. Izan ezean, zerbitzura hurbiltzen bate daiteke izen-emate orria.

* Zerbitzua KZgunean ematen da eta erabiltzaile bertan egon behar da zerbitzuak irauten duen bitartean.

* Ez da inolaz ere lizentziadun sistema eragilerik instalatuko eta ezta ere garantian dauden ordenagailuetan esku hartuko.

* Lizentzia gabeko softwarerik ez da instalatuko.

* Zerbitzua aurretiko zita bidez eskeinitako da.

Zerbitzuan interesaturiko edozein erabiltzailek IKT Adituekin harremanetan jartzeko arestian aipaturiko zentruetako telefonoetara deitu dezake.

Joxi.



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

ARGAZKIRIK EDERRENAK

XI. HITZA Argazki Lehiaketa » Bukatu da lehiaketa; Maider Muñagorrik eta Erlantz Gonzalezek jaso dituzte bozka gehien.

ERREDAKZIOA

Bukatu da XI. HITZA Argazki Lehiaketa. Pasa den Aste Santuko argazkiak jasotzeko deialdia apirilean egin genuen, eta oso erantzun ona jaso dugu, izan ere 76 argazki jaso ditugu guztira.

Urteroko moduan argazki gehienak paisaienak izan dira, bai-

na hala ere, izan dira xehetasunak aukeratu eta irudikatu dituztenak ere.

Epaimahaiaren lana

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN epaimahaiak oso egiteko zaila izan zuen, izan ere, ez zen lan xamurra izan jasotako irudi guz-

tien artean zortzi bakarrik aukeratzeara. Azken erabakia, dena den, zeuena izan da, harpidedun guztiena. Dei ugari jaso ditugu azken egunetan, beraz eskerrik asko zeuen bozka helarazi diguzuen guztioi!

Bozka gehien Maider Muñagorriren argazkiak jaso ditu. Argazkia Zarautzen atera zuen, eguraldi bikaina egiten zuela aprobetxatuz hondartzara eginiko txangoan. Adibide argia beraz, ez dela oso urrutira joan behar argazki ederak ateratzeko.

Sariak

Maider Muñagorrik Busturiako Iturbe landetxe bikainean bi pertsonentzako bi gauko egonaldia irabazi du. Zorionak!

Zorionak ere beste bi irabazleei. Bigarren postua Erlantz Gonzalezek eskuratu du. Erlantzek bermeko Artiketxe landetxean bi pertsonentzako bi gauko egonaldia eskuratu du.

Harpidedunek gehien bozkatu duten hirugarren argazkia, aldiz, Jon Aizpuruarena izan da. Jonek Berastegiko Larte gaztagileen bi

gazta eder etxeratuko ditu. Era berean, XI. HITZA Argazki Lehiaketa posible egin duzuen guztien artean, hau da, argazkiak bidali dituzten 76 pertsonen eta bozka emateko deitu edota idatzi duzuen guztien artean HITZAko produktuen sorta pare bat zozketatu ditugu eta irabazleak Berastegiko Paki Masa eta Alegiako Alazne Casis izan dira. Zorionak zuei ere!

Nahiz eta argazki lehiaketa bukatu den jada, kontutan hartu bidali dituzten argazki guztiak gure webgunean daudela.



Maider Muñagorrik irabazi du XI. HITZA Argazki Lehiaketako lehen saria Zarautzeko hondartzan ateratako argazki honekin. MAIDER MUÑAGORRI



Capbretonen ateratako argazkiarekin lortu du Erlantz Gonzalezek bigarren saria. ERLANTZ GONZALEZ



Portugalgo Estoril herriko irudia aukeratu zuen Jon Aizpuruak, eta hirugarren egin du. JON AIZPURUA

San Isidro Eguneko ekitaldiak, euriak bustita

San Isidro Eguna » Bazkaria, afaria, herri kirolak, jolasak, antzerkia, prozesioa, bertsoak...denetik izan da baserritarren egunean.

ERREDAKZIOA

San Isidro Eguna ospatu zuten atzo Alkizan, Asteasun, Amasan, Berastegin, Gaztelun... Ekitaldi ezberdinak izan ziren herri bakoitzean baina guztiak ere euriak bustiak izan ziren. Ekitaldi onean, erruz bota zuten euria.

Asteasun, meza ostean, zaldia eta idi parearen arteko erakustaldia izan zuten herriko plazan. 20 minutuko saioa egin zuen bakoitzak. Zaldia, 1200 kiloko harria mugitu behar izan zuen eta idi pareak berriz, harriaz gain 200 kilo gehiago bi zakutan banatuta. Zaldia izan zen garaile 49 plaza eginda eta idi pareak aldiz, 45 plaza egin zituen. Ondoren, bazkaria izan zuten bertsolari eta guzti.

Amasan ere, meza ostean, elizako kanpandorreko kanpaiak ez ziren isildu. Arientzako Kanpaijole Eskolako kanpaijoleak aritu ziren. Garai batean jotzen ziren kanpai mota ezberdinak jo zituzten: angelusakoak, auzoa biltzekoak, gaixoedota hil kanpaia ezberdinak... Hauen ostean, Giza proba izan zen. Hamabost minutuko saioak

egin zituzten, Orioko Heldu eta Aiztondo-Oarso taldeek. Jarraian, bazkaria eta afaria ere izan zituzten, trikiti doinu eta bertsoez lagundurik.

Berastegin, San Martin elizara prozesioa egin zuten txistularien laguntzarekin. Ondoren bazkaria izan zuten eta arratsalde, eskolako gimnasioan, gazteen antzerkia eta haurren bertsoak izan ziren.

Alkizan, hurrek gurpil lasterketa eta ondoren, III. Frontenis Txapelketako finalak jokatu ziren. Egunari amaiera afariarekin eman zioten. Gaur ere, San Isidroak bukatzeko, ekitaldi ezberdinak izango dituzte.

» ALKIZA

Gaur

- **08:00etan.** Mendi Martxa mundiala (Gazumetik buelta).
- **14:00etan.** Fronteniseko bazkari irekia Ostatu Jatetxean izango da.
- **16:30ean.** I. Banakako Mus Txapelketa. Izena ematea 2 euro ordaindu beharko da.
- **Afaria.** Ostatu Jatetxean.



Amasan, giza proba. Asteasun erakustaldia, zaldia eta idi parearekin eta Berastegin prozesioa. E. MAIZ/ A. IMAZ/ I. TERRADILLOS



Alkizan, frontoi barrura sartu eta 12 urtetik beherako hurrek gurpil lasterketa egin zuten. E. MAIZ

Harpidedun egiten bazara aisialdirako **bonu bat opari**

Eroski Bidaiak eta Baskinbox etxean eskutik.

40 eskaintzatik gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.

Gozatu berria^{esh}

Hotel bateko egonaldi bat, 2 lagunentzako bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzu aukeran.

HARRERANETARAKO
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info



Uztailaren 15ean

Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo dugu BERRIren harpidedunen artean. Eroski Bidaiak-en eskutik.



Orain, beste arrazoi bat BERRIren harpidedun izateko.



Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**



Alacanteko dantzarien bisita

TOLOSA » Alacanteko Grup de danses D'Ibi dantza taldearen bisita izan du asteburu honetan Udaberri taldeak. Atzo goizean iritsi ziren Tolosara, eta herriko txokoak ezagutu ostean, arratsaldean, dantza ema-

naldia eskaini zuten bi taldeek Berdura plazan. Ondoren, afaria izan zuten guztiek sagardotegian. Gaur gozaldia ostean jarriko dira Alacanterako bidean Ibiko dantzariak. l.TERRADILLOS

Topic zentroa doan bisitatu ahalko da etzi

Kultura » Museoren Nazioarteko Egunaren harira egingo dute; zentroarekin batera museoa bisitatu ahalko da.



Museoren irudi bat. l.T.

ERREDAKZIOA

Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroak jardunaldi irekia egingo du etzi, Museoen Nazioarteko Eguna dela eta. Jardunaldi horretan, bisitarietarako zabalik izango dituzte ateak museoak nahiz *Txina, tradizioko pertsonaia* aldi baterako erakusketak, eta dohainik egin ahal izango da bisita, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Topic zentroaren museoak Europako txotxongilo bilduma bikainenetako bat osatu du. Mundu

osoko hainbat herrialdeetako txotxongiloak ditu. Horien artean, Asiako herrialdeetako piezen saila dazabalena, baina Amerika, Afrika eta Europako sortak ere oparoak dira.

Txina, tradizioko pertsonaia erakusketak 110 pieza ditu, antzerkiaren ikuspegitik balio handikoak. Erdiak itzal bidezko txotxongiloak dira. Txotxongilo horietako asko lehen aldiz jarri dituzte jendaurrean erakusgarri.

Kultura » Kultur Astea bukatu dute Albizturren eta Amezketan; Iruran jarraitzen du, eta Lizartzan bihar hasiko da.

INIGO TERRADILLOS

Eguraldi petralari aurre egin eta arpegi ona jartzea ez dela hain lan-tegi zaila erakutsi zuten atzokoan Albizturren, Amezketan eta Iruran. Kultur Astearen barruan hainbat ekitaldi gozatu zuten, eurria eta hotzarekin ahaztuz.

Albizturren, esaterako, «oso arrakastatsua» izan zen herenengo antzerki saioa, Kultur Etxeko areto nagusia txiki geratu baitzen. Herri Eskolako ikasleen emanaldia ez zuen inork galdu nahi izan. Atzo, berriz, 20 lagun inguruk sagardotegira irteera egin zuten.

Amezketan, bestalde, 30 jubilatutik inguru bildu ziren goizean Zazpi-Iturri elkartearen hamaitetako egiteko. Arratsaldean, bertso-potea eta zahagi ardoa izan zuten, eta festak Itzel taldearen dantzaldiarekin izan zuten jarraipena gauetan.



Herri Eskolako gaztetxoek antzezlan eskaini zuten Albizturren. E. EZEIZA

Iruran, ostiralean hasi ziren Kultur Astearekin. Atzo egun osoko egitaraua izan zuten. Goizean marrazten aritu ziren gaztetxoak eta arratsaldean magia ikuskizuna izan zuten. Iluntzean jubilatuek antzeztan ikusteko aukera izan zuten, eta ondoren afaria egin zuten. Gaur xake partidak izango dituzte.

Lizartzan, hastear

Albizturren eta Amezketan Kultur Astea bukatu dute, eta bihurtik aurrera, Lizartzak hartuko du kulturaren lekukoa, ekitaldi ugariarekin. Iruran, berriz, hasi besterik ez direla egin esan daiteke, datorren igandera arte luzatuko baitira kultur jarduerak.



Atzo goizean marrazten aritu ziren Irurako gazteak. E. MAIZ



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Jubilatuek hamaitetako ederra egin zuten atzo goizean Amezketan. l.TERRADILLOS

Herriko gazteen Baltza Jaitsierak giro polita jarri du Txapin Festan

Tolosa » Oria ibaiaren ertzean jende ugari gelditu zen atzokoan ontziei eta igeriketan ibili ziren gazteei begira.

ASIER IMAZ

Tolosako gazte koadrilak taberna eta lokaletatik kalera ateratzeko antolatu zuten III. Txapin Festa. Atzokoa ikusi ondoren, gazteez gain, haur eta heldu asko ere etxera joan beharrean kalean gelditu ziren txapindunei begira. Horren adibide garbia Baltza Jaitsiera izan zen.

12:00etan Igarondo inguruan jendea elkartzen hasi zen. Oria ibaiaren ondoan algarak eta irribareak nagusi ziren. Bertan aurkitzen ziren gazteek egindako baltzak. Oro har nahiko itsura oneko ontziak, Inpernu Gaztetxeko kide-

en zera izan ezik. Oria ibaira sartu aurretik etorkizun gutxiko baltza zela argi ikusten zen. Gainean bost pertsona jarri zirenean, zer esanik ez. Hala eta guztiz ere Inpernuko gazteak izan ziren Zerkausira iritsi ziren lehenak, hori bai, igeriketan.

Beste baltsetako kideek ere ibaian barrena ibiltzeko aukera ez zuten alferrik galdu. Hasieran lasaitasunez hartu bazuten ere, ondoren elkarren artean ur borrokan ibili ziren. Hauei begira gelditzen ziren herritarrak berriz, gustura zeuden ikuskizunarekin.

Beste hainbat ekitaldi

Jaiarekin aurrera jarraitzeko bazkaria eta jolasak egin zituzten Tolosako gazteek. Iluntzerako berriz kontzertuak antolatu zituzten. III. Txapin Festa Bonberenea txarangak eta Mulanbok egunean zehar jarritako giroa ere azpimarratzeko izan zen.



Baltzak ikusten jende ugari gelditu zen Oria ibaiaren bi aldeetan. Inpernuko gazteak Zerkausira igeri iritsi ziren. A. IMAZ

Abel Barriolak 22-18 galdu du Asier Olaizolaren aurka

Leitza » Herri Arteko Txapelketan ligaxkako lehen garaipena lortu dute leitzarrek, Amazabalen Lizarra gainditu ostean.

ERREDAKZIOA

Nafarroako Herri Arteko Txapelketan, ligaxkako lehen partida jokatu zuen atzo Leitzak Lizarraren aurka. Aurrera Pilota Eskolakoak larri ibili baldin baziren ere, azkenean zortzi tantoko errentarekin irabazi zuten lehia. Ligaxkan sei talde edo herri daude eta aurrerabi onenek egingo dute.



Leitzak atzo jokatu zuen etxean Herri Artekoaren lehen partida. I. TERRADILLOS

» HERRI ARTEKO EMAITZAK

Abel Barriolak ezin

Garaipenik gabe esan dio agur Buruz-buruko Txapelketari Barriolak. Atzo Olaizola Laren aurka 22-18 galdu zuen. Gaur berriz Oinatz Bengoetxeak jokatu du 19:00ak inguruan Irujoren aurka.

Leitza-Lizarra

Alebinak
Jon Lezea-Ander Alduntzin 9
Lizarra 18
Infantilak
Anartz Olano-M. Sagastibeltza 18
Lizarra 0

Jubenilak

X. Jaunarena-J. Jaunarena 22
Lizarra 4
Nagusiak
Iñigo Zubillaga-Mikel Iriarte 3
Lizarra 22
***8 tantoz irabazi du Leitzak.**

Gidariak behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko.
Postu finkoak erakunde publikoetan.
Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira.
Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako.
Postu finkoak.
Lanaldi jarraia.

600-25 42 40



Gaztetxearen XI. urteurrena

ANOETA » Patata Tortilla Lehiaketa burutu ostean Gaztetxean bazkaria egin zuten 20 lagun inguruk atzokoan. Anoetako Gaztetxearen XI. urteurrenaren festa, poteoarekin, afariarekin eta kontzertuekin osatu zuten. Azken ekitaldi honetan, Kozka, Gabezin eta DJ Txekorrek hartu zuten parte. A. IMAZ



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

JABETZA ERREGIMENAN ADJUDIKATZEKO VOITH-GOROSTIDI EREMUKO ETXEBIZITZA TASATUEI LOTUTA EZ DAUDEN GARAJE PLAZAK

Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrak, 2010eko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, Voith-Gorostidi eremuko etxebizitza tasatuei lotuta ez dauden 93 garaje plaza (11 plaza minusbaliatuentzat) jabetza erregimenean adjudikatzeko oinarriak onartu zituen.

Oinarriak eta eskaera orriak: Udaleko web orrian (www.tolosakoudala.net) eta udal erregistroan.

Eskaera orriak aurkezteko epea: 2010eko maiatzaren 18tik ekainaren 15era.

Garaje kopurua: 93 (11 minusbaliatuentzat)

Tolosa, 2010eko maiatzaren 13a

ALKATEA

Jokin Bildarratz Sorron

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Teléfonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoeta/leitza@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra/Leitza: 687 410 118. ibarra/leitza@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza/leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Herri kirolak

■ **Aizkora.** Gipuzkoako 2. mailako aizkora Txapelketako kanporaketa. 12:30ean Beasainen, Gernikako pasealekuko frontoian. Eskualdetik Xabier Alkizalete eta Mikel Belaunzarán egongo dira.
■ **Lokotx biltzea.** Gipuzkoako lokotx biltze Txapelketa gurgildun aukian. Legorretako kiroldegian, 18:30ean. Edorta De Anta tolosarra bertan izango da.

Deialdia

■ **Anoeta.** Bihar, 19:00etan, Udaletxean herriko festak antolatzeko bilera egongo dute. Jai batzordeak herritar zein talde guztiak gonbidatzen ditu parte hartzera.
■ **Villabona.** Santio jaien prestaketa dela eta, hilaren 18an, astearte-

an, Txozna Batzordearen batzarra egongo da Udalaren balio anitzeko gelan, 20:00etan.

Irteera

■ **Tolosa.** Iturrija jubilatutako elkarrekin Blanesera irteera antolatuta du maiatzaren 29tik ekainaren 12ra. Izen-ematea, elkarrekin (Euskal Herria plaza). Informazioa 943 698330 telefono zenbakian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrijo, I. Euskal Herria 3; 943 67 09 15.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



Pello Mari Otaño ere bertsotan

ZIZURKIL ■ Atzokoan, Pello Mari Otañoen omenezko bertso saioa zela eta, Intxaurren frontoia jendez bete zen. Amuriza gai jartzaila zutela, Peñagarikanok Otañoen paperean abestu zuen eta Agirre, Alberdi, Paia, Irazu,

Maia, Iturrija eta Arzallus izan ziren beste bertsolariak. Omenaldiak bukatzeko, hilaren 20an 15:15ean, herriko hiru ikastetxeak bilduko dira frontoian Otañoen bertsoak abesteko. e.mai

A Agurrak



Zorionak Abene!

Bihar 2 urte. Muxu haundi bat gurasoen partetik!



urtebetetzeak
urrezko ezteiak
agurrak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P,K:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia: